

## HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO MAHAI NEGOZIATZAILEAREN AKORDIOA

Eibarren, 2011ko urriaren 4a

### BILDURIK

Alde batetik,

**Marcelino Hernandez Jauna,** Haurreskolak  
Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen  
ordezkari legez.

**Maite Larrañaga Orbea emakumea,**  
Haurreskolak Partzuergoko gerentea.

Beste aldetik,

**Leire Garro Hernaiz,** LAB sindikatuaren  
ordezkari legez.

**Egoitz Isasi Salterain,** STEE EILAS sindikatuaren  
ordezkari legez.

Bi alderdiek legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri akordio hau hitzartzeko,  
eta horren ondorioetarako honakoa

### ADIERAZTEN DUTE

Bi alderdiak Haurreskolak Partzuergoak eskaintzen duen zerbitzuaren goi kalitatea  
goraipatzen dute eta hobetze aldera elkarlana egiteko konpromisoa hartzen dute.  
Helburu hori lortzeko eta alderdien borondate ona dela medio lan hitzarmen berriaren  
negoziazioari berrekingo diote, hurrengoko akordioak hitzartzen dituztelarik:

**LEHENA.-** Lan Sailean 2011ko irailaren 20an hiru sindikatuak aurkeztutako lan uzteen  
plangintza bertan behera uztera konprometitzen dira.

Horren harira, sindikatuak publikoki akordioa langileei, familiei eta jendarteari  
ezagutzera emateko konpromisoa hartzen dute, komunikabideen bidez.

**BIGARRENA.-** 2011ko maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretua, Euskadiko  
aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina

onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duenaren ondorioz, 2012 urtetik aurrera ordainsariekin zerikusia duten gaiak Mahai Orokorrean landuko dira.

**HIRUGARRENA.-** Haurreskolak Partzuergoak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2011ko martxoaren 1an hartutako epaiaren kontra Auzitegi Gorenaren aurrean tarteratutako kasazio helegitea kendu egongo du. Beraz, 2011ko ordainsarrietan ez da murrizketarik gauzatuko, 2007-2009ko lan hitzarmenak aurreikusten dituen ordainsariak ordainduz.

**LAUGARRENA.-** Batzorde tekniko bat sortzeko konpromisoa hartzen da, zeinak aztertuko dituen antolakuntzari dagokionez haurreskola konkretu batzuen egoera, alderdi batek aztertzeko beharra ikusten dutenean. Zentzu honetan, hezitzaile bakarra dagoen haurreskolen egoera aztertuko da.

Batzorde tekniko honek 3 lurraldeen egoera banan-banan aztertzeko konpromisoa hartuko du, eta bertan identifikatutako arazoak konpontzeko neurriak aplikatuko dira behar diren kasuetan, beti ere lan hitzarmenean oinarrituta.

Batzorde teknikoa Haurreskolak Partzuergoko ordezkari eta akordio hau hitzartzen duten sindikatuen artean sortuko da.

Akordio hau sinatzen denetik bi asteetara batzorde teknikoa egingo da eta haurreskoletako egoerak aztertuko dira.

Proposamen honen edukiekin bat egiten dute bi alderdiak eta hemen adostutakoa garatzeko konpromisoa hartzen dute, horrenbestez, bi aldeek ere bat datozela, akordio hau onartu eta izenpetzen dute.